

KANPAINAREN OINARRIAK

ZURE ASEGURUAK GEHIAGO EMATEN DIZU

Agiri honek aseguru hauetako sustapenak jaso eta zehazten ditu: **Autoa, Etxea, Bizitza, Istripuak, Osasuna, Ehorzketa, Merkataritza, Negozioa, Erantzukizun Zibila eta Eguneko Baja.**

Kanpainaren helburua da Caja Laboral Bancasegurosek bitartekotuturiko eta goian jasotako **aseguruaren poliza berriak kontratatzea**. Poliza horiek, konpainiaren kontratazio-arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete behar dituzte.

1.- Kanpainaren datak

Sustapena 2024ko irailaren 18an hasi eta 2024ko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edozein unetan, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2024ko irailaren 18tik abenduaren 31ra bitartean kontratatu behar dira polizak (efektu-datak, berriz, 2025eko martxoaren 31ra arteko muga izango du).

2.- Eskaintza eta baldintzak

Bezeroek abantaila hauek izango dituzte, kanpainaren indarraldian berorren baldintzak betetzen dituzten kanpainako adarretako polizaren bat kontratatuz gero:

Kontratutako adar hauetako aseguru berri bakoitzagatik zenbateko bat jasotzea:

- **Auto Asegurua. 50 €** itzuliko dira, Multiaseguru Kontuari lotuta auto-aseguru berria kontratatzeagatik edozein modalitatetan (Arrisku Orotako frankiziarik gabea eta Hirugarrentzakoa Oinarritzkoa izan ezik), betiere aseguruak **280 €**-tik gorako prima badu eta kanpainaren gainerako baldintzak betetzen baditu. Sustapenak lehen kategoriako ibilgailuentzat balio du, betiere gidariak 25 urte baino gehiago baditu, 2 urteko gidabaimena badu, SINCON ezbeharririk gabeko espedientea badu —gutxienez 3 urteko informazioa— eta diruzko obligazioak betetzeari edo ez-betetzeari buruzko fitxategian ez badago. Konpainiaren kontratazio-arauei lotua dago.
- **Etxe Asegurua.**
Hipoteka-bermedun mailegu berriei lotuta EZ dauden etxe-aseguruaren baldintzak
30 € itzuliko dira, Multiaseguru Kontuari lotuta etxe-aseguru berria kontratatzeagatik zenbait modalitatetan (Optimoa, Optimoa ON, Optimoa+, PLUS, Errentatzailea, Maizterra eta Lehen Arriskua), betiere prima **220 €**-tik gorakoa bada, edukitzailearen kapital aseguraturua gomendatutakoa edo handiagoa bada eta edukiaren gutxienerako kapitala 20.000 €-koa edo handiagoa bada, salbu eta gomendatutakoa zenbateko hori baino txikiagoa bada. Konpainiaren kontratazio-arauei lotua dago. Aseguruak ez dira lotuta egongo LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa (hipoteka-bermedun mailegu edo berme pertsonaleko mailegu) berriekin. Konpainiaren kontratazio-arauei lotua dago.
- **Bizitza Asegurua. 50 €** itzuliko dira, Multiaseguru Kontuari lotuta bizitza-aseguru berria kontratatzeagatik zenbait modalitatetan (**+Bizitza, Bizitza Emakumea eta Bizitza Optimoa**), betiere prima **200 €**-tik gorakoa bada. Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili. Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira. Aseguruak ez dira lotuta egongo LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa (hipoteka-bermedun mailegu edo berme pertsonaleko mailegu) berriekin.
- **Istripu Asegurua. 30 €** itzuliko dira, Multiaseguru Kontuari lotuta istripu-aseguru berria kontratatzeagatik zenbait modalitatetan (Istripuak Optimoa eta Istripuak SUPER LK), betiere prima **125 €**-tik gorakoa bada. Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili. Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira. Aseguruak ez dira lotuta egongo LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa (hipoteka-bermedun mailegu edo berme pertsonaleko mailegu) berriekin.
- **Osasun Asegurua. 50 €** itzuliko dira, osasun-aseguru berria kontratatzeagatik zenbait modalitatetan (Más Salud, Más Salud Plus, Más Salud Óptima, Más Salud Familias, Más Salud Familias Plus, Sanitas Profesionales, Sanitas Profesionales Plus eta Sanitas Profesionales Óptima), betiere prima **250 €**-tik gorakoa bada. Arriskuak aseguratzailearen kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- **Ehorzketa Asegurua. 30 €** itzuliko dira, ehorzketa-aseguru berria kontratatzeagatik (Oinarritzko Ehorzketaren modalitatean), betiere prima **125 €**-tik gorakoa bada. Arriskuak aseguratzailearen kontratazio-arauen barruan hartuko dira.



KANPAINAREN OINARRIAK

ZURE ASEGURUAK GEHIAGO EMATEN DIZU

- **Merkataritza Asegurua. 50 €** itzuliko dira, Multiaseguru Kontuari lotuta Seguros Lagun Aro SA konpainiaren merkataritza-aseguru berria kontratatzeagatik, betiere konpainiak edukitzailerako gomendatutako kapitala edo handiagoa aseguratzeko bada. Aseguratua errentatzailea edo jardueraren jabea eta ustiatzailea bada, beharrezkoa izango da edukitzailearen kapitalean gomendatutako zenbatekoa edo handiagoa kontratatzea (Edukitzailea Lehen Arriskuan modalitatean izan ezik) eta aseguruaren prima **250 €**-koa edo handiagoa izatea. Ez dira sartzen lokal hutsak, trastelekuak eta garajeak. Arriskuak aseguratzaileraren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- **Negozio Asegurua. 50 €** itzuliko dira, Multiaseguru Kontuari lotuta Seguros Lagun Aro SA konpainiaren negozio-aseguru berria kontratatzeagatik, betiere aseguruak **300 €**-ko prima edo handiagoa badu. Arriskuak aseguratzaileraren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- **Erantzukizun Zibileko Asegurua.**
 - **50 €** itzuliko dira, Seguros Lagun Aro SA (Multiaseguru Kontuari lotuta) edo Seguros de Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER konpainien **Ustiattegiko Erantzukizun Zibil Orokorreko Asegurua** kontratatzeagatik, betiere aseguruak **250 €**-ko prima edo handiagoa badu. Arriskuak aseguratzaileraren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
 - **50 €** itzuliko dira, Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER konpainiaren **Erantzukizun Zibil Profesionaleko Asegurua** kontratatzeagatik, betiere aseguruak **250 €**-ko prima edo handiagoa badu. Arriskuak aseguratzaileraren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- **Eguneko Baja Asegurua. 50 €** itzuliko dira, Previsión Mallorquina de Seguros SA konpainiaren eguneko baja-aseguru berria kontratatzeagatik, Laneko Baja Optimoa modalitatean, betiere prima **250 €**-tik gorakoa bada. Arriskuak aseguratzaileraren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- **Bizitza eta/edo Istripu Aseguru Kolektiboak. 30 €** itzuliko dira, Multiaseguru Kontuari lotuta bizitza- eta/edo istripu-aseguru kolektibo berria kontratatzeagatik, betiere prima **125 €**-tik gorakoa bada. Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili. Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira. Aseguruak ez dira lotuta egongo LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa (hipoteka-bermedun mailegu edo berme pertsonaleko mailegu) berriekin.

3.- Beste baldintza batzuk

- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Polizak urtebetekoa izan behar du, eta berriztagarria.
- Ordainketak LABORAL Kutxaren Multiaseguru Kontuan egon behar du helbideratuta, baldintza hori ez duten produktuetan izan ezik (CASER SA konpainiaren Eguneko Baja, Osasuna, Ehorzketa eta Erantzukizun Zibila).
- Abantailak lortzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Muga: 2.000 eragiketa.
- LABORAL Kutxaren kanal guztien bidez kontratatzen diren aseguruetarako balio du eskaintzak.
- Eskaintza hau ezin da beste kanpaina edo kolektibo batzuekin batera erabili.
- Kontratutako aseguruaren ordainagiria kobratu ondoren 90 egunetan egingo dira diru-itzulketak.

4.- Sustatzailea

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da. B-75060988 zenbakiko IFK du eta banka-aseguruetakoa operadore lotetsia da. Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Aseguru Bitartekariaren Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzailerak: Seguros Lagun Aro SA (IFK: A-20079224), Seguros Lagun Aro Vida SA (IFK: A-20182705), La Previsión Mallorquina de Seguros SA (IFK: A-08169013), Sanitas SA de Seguros (IFK: A-28037042), EXPERTIA Seguros de Decesos SA (IFK: A-33003906) eta Caja de Seguros Reunidos Compañía de Seguros y Reaseguros SA – CASER (IFK: A-28013050). Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Kontsultatu aseguratzailerak hemen: www.aseguruak.laboralkutxa.com.



KANPAINAREN OINARRIAK

ZURE ASEGURUAK GEHIAGO EMATEN DIZU

5.- Aplikazio-eremua

Kanal hauek erabiliz kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina: www.laboralkutxa.eus webgunea, aseguruetan espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200) eta Caja Laboral Popularren banka-asegurueta-ko operadore lotetsia den Caja Laboral Popularren banaketa-sarea —Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.